


Demokraziaren festa



ANE ABLANEDO LARRION
IRAKASLEA



ANTTON OLARIAGA

Hauteskundeetara deituak izan dira azken egunotan espainiar hiritarak, juntetxe, parlamentu edota udaletxeetako partaideak hautatzera, erakunde horiek *berriztatzen*, eta hori ari dira orain guztiak, analisisetan, kalkuluetan, noren esku eroriko boterea, norekin lortuko aliantzak, norekin osatuko gobernuak. Prozesuak garbi ematen du: hauteslekuetara konbokatu, gus-tuko hautagaiak hautatu, bozkatu, eta gehiengoak irabaztean prozesua, kito. Zer eragozpen aurki lekiok horri? Demokraziaren festa esaten zaio.

Euskaldunontzat, bozkatea ez da eman lezakeen bezain keinu inozentea edo neutroa. Ez genuke ahaztu behar gu ez garela espainolak, espainiar okupazio-pean bizi den herri menderatua baizik, eta horrek, noski, dena aldatzen duela. Hasteko, ezin delako esan hemen demokrazia dagoenik, eta definizioz gainera. Demokrazia Herriaren boterea da, eta *herria* ez denez modu abstraktuan ulertu behar, Herri konkretuen zentzuan baizik, euskaldunon boterearen sinonimo gisa baizik ez dugu hitz hori ulertu eta erabili behar hemen. Eta horixe da gure arazoa, Frantziak eta Espainiak bahitua digutela boterea, beraiek hartu dutela, bortxaz, gure gaineko agintea.

Gainera, sistema baten demokratikotasuna neurtzeko parametroa da begiratzeari eskubide funtsezkoak zenbateraino errespetatzen diren. Autodeterminazio-eskubidea (independentzia) urratu zaigu hemen, eta horixe izanik eskubide horietan lehena, eta gainerako guztien baldintza, erregimen inperialista da daukaguna, eta beraz, ez demokratikoa. Bozkatu ahal izateak edo hauteskundeak deitze hutsak ez du sistema bat, berez, demokratiko bilakatzen. Argi dago.

Gero, noski, hauteskundeak eta hauteskundeak daude. Ez dira denak berdinak. Alde batetik, benetako boterea duten erakundeetarako hauteskundeak daude, Espainia eta Frantziako parlamentuetarakoak, alegia, horiek dira benetako parlamentu bakarrak, botere legegilea dutelako. Gainerakoek, administrazio autonomikoa-eta osatzen dutenek, botere zentral nagusi horren legeak onartzearen eta betearaztearen funtzioa baino ez dute, oro har.

Espainia eta Frantziako hauteskunde orokorretan ez dugula inoiz presente egon behar, azalpen gehiegi behar ez lukkeen baieztapena iruditzen zait, espainiar konstituzioaren lehen artikulua berak dioelako populu espainiarra baino ez dela existitzen, eta mendeen hartuak

dituen gainerakoak errotik ukatzen ditu. Zer atera daiteke hor egonda, ez bada euskaldunon gaineko zapalkuntza onartzea, aitortzea, zuritzea, eta larriena dena, sistema hori demokratikotzat jotzea eta zilegiztatzea? Horietan boikot erabatekoa eta ñabardurarik gabea egin behar da. Eta besteetan?

Garbi edukita "erakunde" horiek espainiar (edo frantziar) administrazio orokor, zentral eta kolonialaren sateliteak baino ez direla, eta benetako botere burujaberik ez dutela, kontua litzateke geure buruari galdetzea ea Herri moduan horietan parte hartzeak gure nazio-askapen helburuetan laguntzen duen ala ez. Eta tira, bai, izan liteke "erakunde" atzeritar horiek erabiltzen saiatzea gure aldarrikapen nazionalaren erresonantzia-kutxa baten moduan, zergatik ez?

Horretarako, baina, elkarrekin joan beharko genuke euskaldunok, batasun nazionalaren formulazio hutsean, Erresistentzia osatuko luketen indar demokratiko guztiek osatuta, helburu estrategiko bat eta bakarraren inguruan: independentzia nazionala, eta geure estatuaren berrezarpena.

Horretatik urrun gaude, antipodetan, beste planeta batean.

Horregatik ni, bitartean, etxean. ●